



Hausnartzeko telesailak

I May Destroy You

HBO

Ziur asko oraindik entzun ez duzun arren apuntatu ongi bi izen hauek: “I May Destroy You” telesaila eta bere sortzaile eta protagonista nagusia den Michaela Cole. Aktoreak berak jasan zuen sexu eraso batean oinarrituta, ia gogoratzen ez duen baina gertatu zaion bortxaketa baten biktima izateak uzten duen traumari buruzko kontakizun paregabea iruditu zait. Tinder belaunaldiko sexu adostasunari eta harremanen merkantilizazioari buruzko erradiografia aparta. Trauma bat baino askoz gehiago dela frogatu nahi duen kontakizun desberdina eta iraultzailea.

Nabarmentzekoa lehenik, hasieratik erakusten duen ausardia ikaragarria. Askok polemikotzat edo asaldatzailatzat jo dute dagoeneko, ziur aski gizarte gisa erabat prestatuta ez daudelako gai horiei buruz hitz egiteko. Harriagarria iruditu zait beharrezkoak diren gai ugari nola jorratu dituen, gizonen zein emakumeen aurkako sexu indarkeria islatzen duten azpitramak txertatuz; trauma osteko sindromearen normalizazioa, gehiago entzuteko beharra duen belaunaldi baten gizarte isla leiala, arrazismoa, transfobia, homofobia, suizidioa, depresioa, baina figura arrakastatsuen bidez azalduz, bakardadea, eta, noski, gero eta polarizatuagoa den mundu batean geure lekua edota izena sortzeko nahiak sorrarazten duen antsietatea.

Telesaila sexu hezkuntzako klaseetan jarri beharko litzatekeela iruditzen zait. Deserosoa eta gogorra izan arren, beharrezkoa da bertan planteatzen zaizkigun

Telesailak ez dira soilik entretenimendurako sortzen diren telebista produktuak. Une askotan hori ere badira noski, baina atal berri honetan, hausnarketa sakonak egiteko parada eskaintzen diguten ekoizpen paregabe ugari daudela ere aldarrikatu nahiko nuke. Geure garunak astindu, kontzientziak zirikatu eta gai polemiko, interesgarri eta mamitsuak mahai gainean jarritz, eztabaidarako parada ematen dutenak. 2020. urtean ikusi ditudan telesail ugariren ezaugarri nagusia hori izan denez, aitortuko dizut erraza izan dela gomendio zerrenda hau osatzea. Pantaila txikiaren bidez hausnartzeko prest?

gaiei heltzea eta gogoeta sakonak egitea. Bizitzaz diharduelako azken finean, baina bizi dugun errealitate berriaren betaurrekoetatik, sare sozialez eta sexuaz.

L’Effondrement

Filmin

2019ko telesaila den arren, 2020ko udako fenomeno bilakatu den ekoizpena da zalantzarik

gabe. Filmin plataforman txertatzeak eman dion bultzada nabarmena izan da, baina, batik bat, erakusten dituen irudiak pandemia egoeran gaudenetik gertukoak eta ez hain arrotzak sentituko dituzulako. Zortzi atal, bakoitza sekuentzia plano bakar batean filmatua. Hasieran ezagutzen ez dugun gertaera konkretu batek gizartearen erabateko kolapsoa eragin du. Zortzi gertaera independente dira, kolapsoa eragin duen gertaeratik egun desberdinetan kokatuak. Bakoitza, denbora errealean filmatutako emozioen errusiar mendi bat da, non abentura, akzioa, drama, eta larritasuna lehen pertsonen eta ekintzaren barruan egongo bazina bezala biziko dituzun, ia bideo joko batean izango bazina bezala.

Aho zabalik utziko zaituen telesail larrigarria eta frenetikoa. Aparta. Teknikoki, azken urteetan ikusi dudan proposamenik berri-tzaileenetarikoa. Lehen minutuan lepotik heldu eta azken segundoraino askatzen ez zaituen ekoizpen zorbiagarria. Guillaume Desjardins, Jeremy Bernard eta Bastien Ughetto, Les Parasites izeneko taldea osatzen duten hiru errealizadoreen lanari ez zaio meriturik falta, baina arrakastaren behin betiko bultzada bizi dugun pandemia bera izan da. 2019an filmatutako atalek hain modu nabarmenean hitz egiten dute 2020an gertatutakoari buruz, ezen telesail hau ikusteko moduan erabat eragiten baitu. Errealitateak telesailari lagundu badio, jariatzen duen errealismoak bere arrakasta errematatzea lortu du. Kolapsoaren beldurra transmititzen duen istorioa da, erakusten duen gizartearen desintegrazioa guztiz sinesgarria delako.



Når støvet har lagt sig

Filmin

Eskandinaviako telebistan %42ko *share* ikusgarria lortu duen telesail hau ere ezinbestekoen zerrenda sartu beharko zenuke. Fenomeno horren zergatia guztiz ulertzen dut, Europa iparraldeko urteko telesailik onena iruditu baitzait. Gurutzatzen diren istorioen egituraz baliatuz Kopenhage hiriko jatetxe batean gertatzen den atentatu terrorista basati baten gaineko kontakizun gordina da.

Eraso hori gertatu baino hamar egun lehenago kokatzen da tramaren erpin bat, baina baita gertatzen den unean eta, noski, ondoren ere. Interesgarriena da guztia ikuspegi soziologiko baten betaurrekoetatik begiratze-ko aukera eskaintzen digula, jakin gabe elkarrekin konektatuta daudela –edota egongo direla– eta pertsonaiek beren bizitzako inflexio puntu gorenean nola erreakzionatuko duten jakin gabe. Askotariko pertsonaia horiei esker –Justizia ministroa, etxerik gabeko ama, jatetxeko jabea, zerbitzarietako bat eta bederatzi urteko alaba, iturgin bat, palestinar jatorriko ile apaintzaile bat, abeslari suediar bat eta mugikortasun arazo larriak dituen erretiratu bat–, telesailak milimetroraino aztertzen du daniar mikrokosmos hori. Hain sakonki sartzen gara pertsonaien errutina horretan, narrazioa hain da zehatza eta sendoa, une batzuetan ahaztu egiten baitzaigu pantailaren aurrean gaudela.

Asko gustatu zait fikzioaren asmoa ez dela inongo momentutan interesaren morboa atentatuan ardaztea. Guztiz kontrakoa. Helburua da zu eta ni izan gintezkeen pertsonaia horiei nola eragiten dien erakustea. Nola hobetu edo okertu gaitzakeen. Elkartu edo zatitu. Gaitzestea edo askatzea. Benetakoa, gertukoa eta gordina, eta baita oso gizatiarra ere. Horrekin guztiarekin, telesail nordiko askok era

paregabean egiten duten moduan, Danimarkako gizartearen erradiografia txiki bat ikusteko oso baliagarria iruditu zait.

Devs

HBO

Zeinen zaila den hainbeste zirra-
ra eta sentsazio transmititu diz-
kidan telesail baten mamia hit-
zen bidez transmititzea. Buru-
hausgarri existentzial zoragarria
iruditu zait, Alex Garland ironia
erruz duen gidoilari burutsua
dela frogatu duen lan zirraragarria.
Zientzia-fikzioz moxorrotua dagoen
lan zorrotza eta txundigarria.

Lily eta Sergei bikotea dira, San
Frantzisko hiriko kanpoaldean
kokatua dagoen enpresa teknologiko
batean egiten duten lan, Amaya enpresan.
Enpresa misteriotsu horren barruan,
Devs izeneko azpiproiektu bat garatzen
ari den talde bat dago, eta Sergei
bertan errekrutatzen dute. Egun
batean Sergei ez da etxera itzuliko,
eta Lilyk enpresak bere bikotearen
desagerpenari buruz ematen dion
bertsio ofizialaren atzean beste
zerbait ilunagoa dagoela uste du.
Enpresaren fatxadaren atzean zer
ezkutatzen den eta enpresaren
proiektu klandestinoen benetako
xedea zein den ikertzen

hasiko da, eta ondorio beldur-
garri eta latzak aurkituko ditu.

Desafiatzailea, intimoa, do-
torea eta bisualki hipnotikoa da.
Urteko zientzia-fikziozko piezarik
dotore eta pertsonaletako bat izateaz
gain, premisaz harago, abangoardiako
teknologia ingurune batean giro-
tutako konspirazio thriller bezala
planteatua dago telesaila. Hainbat
kontzeptutan sakontzen du gainera,
hala nola determinismoan, hautapen
askean, ingeniari-
tza kuantikoan, gizaki egiten gaituen
horretan eta adimen artifizialaren mu-
getan. Galdera ugariz eta oso erantzun
gutxiz betetako thriller teknologikoa.

Little Fires Everywhere

Amazon

“Big Little Lies”, “The Affair” edo-
ta “Bloodline” bezalako telesailak
gustuko badituzu, hau da aukeratu
behar duzun hurrengo. Mendekotasun
sortzailea eta oso entretenigarria. Ohio
inguruko auzo batean kokatzen da
trama nagusia, eta istorioaren erdi-
gunean bi emakume: Elena (Reese
Witherspoon), arauak zorrotz jarraitzen
dituen tokiko kazetaria eta Mia (Kerry
Washington) alabarekin batera au-
zora iritsi berri den emakume misteriotsua.
Azalduko ez ditudan hainbat gorabehera
tarteko, bi emakumeek talka egingo du-
te, haien seme-alabak lagun egiten
diren bitartean.

Telesailaren erdigunean kokatzen den gai nagusi eta arantzatsua
amatasunarena da, modu ezberdinetan
ulertuta eta ikuspuntu guztietatik hartuta.
Itxuraz denak perfektua dirudien-
ean, sarritan sumatzen duzu badela
azpian beste zerbait gordeta. Istorioak
ere sinplea eta argia dirudi, baina
pertsonaien begiradek, keinuek eta isiluneek
ezkutuko sekretu eta orbainak aurkitzera
eramango zaituzte, geraezina izango den
lehergai-lua zartarazi arte. Izenburuak
dioen bezala “Su txikiak edonon”. Hori
bai, AEBetako gizartearen gaitz nagusien
zaurietan hatza hondoratzen duten su txiki
handiak.

